


Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

ARGAZKIAK ETA TESTUA:
XABI AIZPURUA

Zarautz - Getaria - Zumaia (Gipuzkoa)



Galtza bakero eta takoiekin

Izerdirik atera gabe eta galtza bakeroekin naturaz gozatzea posible al da? Bai. Ez daukagu urrutiko mendi tontorretara, itsaso galduetara, edo baso ezezagunetara joan beharrik. Horiek guztiak ere oso interesgarriak, politak eta gozatzeko modukoak izango dira, zalantzarik gabe.

Baina, izan gaitezen errealistak, daramagun bizimodu honekin ez daukagu asti askorik mapetan uxarka aritzeko, turismo gidetan aztarrean ibiltzeko, GR eta PR ibilbideen zailtasun mailak neurtzeko. Askotan, gauden zurrunbilotik irten, *off* botoiari sakatu eta memento batez agur esateko gogoia etortzen zaigu. Banoa.

Parranda osteko igandeetan, mendiko botak janzteko gogoia izaten al dugu? Ez askorik. Ba ez dezagun behartu geure gorputza, bestela ere nahiko egur ematen diogu eta. Ihesaldi laburrak, bizpahiru ordukoak, prestakuntzarik behar ez dutenak, iristeko errazak, eta batez ere, bakero eta takoiekin egiteko modukoak. Asfaltoa eta natura elkarren ondoan, kontraesanaren armonian dauden tokiak ezagutuko ditugu ihesaldi motz hauek egiteko. Zarautz eta Zumaia arteko kostaldea ederra da, baina postaletako irudi tipiko eta topikoez gain, txoko ezezagunagoak ere badaude bertan.

Bazter ezezagun horietako bat Zarautzen aurkituko dugu. Bertako hondartzak ez dauka sekreturik: marradun toloak eta urrutira ageri den Getariako arratoia. Baina hondartzatik ez oso urrun txoko berezi bat dago. Parrokia ondotik aldapa gora abiatu eta Vista Alegre auzora iritsiko gara. Maldan eta zuhaitz artean eraikitako etxeek osatutako auzo honen goialdera iritsitakoan, Auzo Elkartek daukan egoitzaren atzealdean, Vista Alegrek parkea agertuko zaigu beso zabalik. Zuhaitz arteko bidexka ugarietako bat aukeratu eta gorantz abiatuta, abagune politak topatuko ditugu berrikeretarako edo haurrekin jolasteko. Garai batean, Villapadiernako kondearen jauregia zegoen bertan, eta parke botanikoa osatu zuten mundu guztitik ekarritako landare mota desberdi-

nekin. Zuhaitzak, zuhaixkak, izeiak, espezie bereziak... denetarik aurkitu daiteke. Baita hain berezia den arka-murka zuhaitza ere –horrela esaten diote Zarautzen artelatza-ri-, Kantauriko kostan dagoen artelatza basorik aberatsenetakoa osatuz.

Dena den, ezustekorik ederrena parkearen goialdera iritsitakoan aurkituko dugu: Torreoia. 1913an eraiki zuten zirkulu erdiaren forma daukan begiratoki hau eta Gipuzkoan hormigoï armatuarekin eraikitako lehen eraikina da. Hain zuzen ere, Villapa-

**Getariako moilara doan
bidegurutzea baino 100 metro
lehenago eskailera batzuk daude,
hondartza txikia dago bukaeran**

diernatarren alabarentzat eraiki zuten, neskatzak hango ikuspegi paregabeaz goza zezan. Azken harkadetan, erakunde publikoek ez dute batere zaindu Torreoia. Horregatik da hein handi batean ezezaguna. Dekadentziaren estetika gustatuz gero, terraza aproposa da Zarautzi gain-begirada berezi bat emateko. Inguruko zelaian etzanda ere majo egon daiteke eguzkitan.

Itsaso bazter sekretuak

Mendi aldetik, itsaso bazterrera egingo dugu. Zarautzik Getariara goazela, Getariako moilara jaisteko bideguru-

tzea baino 100 metro lehenago eskailera batzuk aurkituko ditugu pasealekuan. Itsas bazterreko haitzetara eramango gaitu eskailerrak amaitzean hasten den bidexkak. Getariarrek *hondartza txikia* bezala ezagutzen duten honetan, gaur egun ez dago hondarrik. Haitzak besterik ez daude agerian. Nahiz eta errepidea gainaldean izan, itsasoari begira egoteko toki bakartia da. Batez ere udan gozatzeko tokia da haitzarte hau. Inork txintik esan gabe biluzik jartzeko aukera egon ohi da, baita bakar-bakarrik bainatzeak ere. Haitz handiak daude bertan, hiru lagun etzateko modukoak. Goiz-pasa ederra gustuko liburu batekin. Hondarrik ezean, haitzen artetik sartu behar da uretara. Lehorra eta bustiaren arteko eremu horretan, gorputza haitzetara egokitze modua ere izaten da, erdi busti erdi lehor, eguzkitan anfibio bihurtuz.

Katxapo

Getariako arratoia, aipatu bezala, urrutitik begiratuta postaletako silueta ezaguna da. Baina, nork ezagutzen ditu arratoiak bere baitan gordeta dituen sekretu ezkutatuak? Getariako moilatik abiatuta, ordu laurden batean arratoiaren tontorrean gara. Bidean, apurka-apurka herriguneko ikuspegi urbanoa lausotzen joan da, eta naturari utzi dio tokia. Alde batera labarrak, olatuak brausta eta brausta. Bestera, zelai eta bidexka txikiak, apatxo eginda itsasoari begira egoteko eserlekuak.



Goian, Villapadierna kondeak 1913an alabarentzat eraikiarazi zuen torretoa; Gipuzkoan hormigoi armatuarekin egindako lehen lana da.



puntan dagoen eraikin misteriotso honen aurrean, betiko galdera: “Norbait bizi ote da hor? Eta hala bada, nola bizi ote da?”. Bizimodu desberdina, seguru. Itsasargiarekin batera agertuko zaigu Zumaia inguruko kostaldea, eta arratoiaren tontorra gertu izango dugu, gain-gainea Katxapo duela. Katxapo izena du bertan dagoen eraikin zuri zaharkituak. Dekadentzia ukitu bat berriro ere. Batetik, herriaren ikuspegi ederra daukagu bertatik. Bestetik itsasoa zabal-zabal. Zelaia ere badaude goialdean, eta labarretarako mugak ondo itxita daude. Familiarekin bazkaltzera joateko toki egokia da Katxapo. Hurrek primeran pasatzen dute bertan jolastuz, inguru

desberdina iruditzen zaie, eta bidaia antolatzen duenarentzat ez da batere konplikatu eta bertara iristea. Eguraldiak, bat-batean, muturra okertuz gero, berriz, moila bertan dago.

Asfaltoa eta itsasoaren artean jarraituz, Zumaia aldera egingo dugu. Dozena erdi inguru bihurgune pasa-

tu ondoren, tunel zatar baten azpitik pasatuko gara. Zenbat diru gastatu ote dute errepide honetan? Garapenaz hizketan, hau behintzat, jasangaitza. Iraunkorra ez dakit. Tunela pasatu ondoren, malda gora goazela, errepide ondoko babes hesian eten bat topatuko dugu. Hau da gure parentesia. Sasi eta zuhaixka artean behera joango gara, apurka-apurka errepidea atzean utziz. Metro gutxi-
ren buruan, erabat aldatzen da ingurua eta paisaia, autoak derrepente ahaztuko ditugu. Behera goazela, ezkerretara zabalgun bat topatuko dugu, zelaitxo batekin. Maitaleekin edonolako (bai, edonolako) jokojolasak egiteko parada ematen du zelai txiki honek. Hori bai, gu etorri garen bidetik, edonoiz, norbait agertu daitekeela kontuan izan behar. Ikuspegiari eta itsasoaren zaratari pasioa gehitzea bakarrik falta da.

Dena den, zabalgunetik beherago ere joan daiteke. Belar eta haitz artean, egurrezko mahai bat dago bertan jarrita, zahartuta jada. Koadrilarekin edo lagun taldearekin parranda ondoreneko biharamunak pasatzeko toki egokia da. Litxarreriaz betetako zorroak eta bezperako oroitzapenak. Dena den, neuronak ondo izanez gero ere, toki ederra. Badaude kubo formako haitz erraldoi pare bat, Moneo arkitektoak inspirazioa non bilatu zuen salatzen dutenak. Bidexkatik haitz artera jauzi

Begira egoteko, besterik gabe. Ondo zaindutako ingurua da Getariako arratoia, eroso. Bertara doanari haurtzaroko paisaia imaginarioak etortzen zaizkio gogora. Altxorraren uhartea esatea gehiegitxo izango da, baina antzeko zerbait. Tontorrerako bidean topatuko dugu itsasargia. Eta arroka

Surfaren ufada



Zarauztik Zumaiara bitarteko kostaldean txango inprobisatuak egiteko makina bat toki dago; baita kirola eginez gozatzeko ere. Surfa adibidez. Errepidean joanean doala nork ez ditu ikusi olatu aparren artean tauladun inurriak? Zarauzko hondartzan dauden bi gune nagusiez gain (Borgeto eta Beraza), Zumaiara bitarteko kostan leku ugari ibiltzen dira inguruko surfariak eta kanpotik etorritakoak.

Zarauztik abiatuta, Ubiriko badia da toki horietako bat, olatuak agertzen diren heinean harapatzen dituzte bertan. Getariara iri-

tsita, herriaren atzealdean dagoen Gaztetape hondartzan ere jardun ohi dute sarri askotan surfariak. Dena den, azken aldian hedabideetan oihartzun handiena izan duen olatu-gunea ondoren dator: Planeixa. Getaria ondoren dagoen tunela pasatuta agertzen da itsasoan Planeixa ingurua, ur azpiko haitzak ordeka gris bihurturik. Bertan jaio zen, eta hil ere bai, 2006ko otsailan hain ezaguna egin zen olatu erraldoia. Motoekin olaturaino eramanda harapatzen dituzte Planeixan olatuak. Dena den, bada beste tokirik ere. Zumaiara iristear, Orruako badiatxoaren bazterrean, bihurgunean bertan dago Izustarriko punta. Lur mutur txiki horren parean irteten duen olatua ere sarritan hartu ohi dute ausartenek. Azkenik, Orruako badiatxoan sortzen diren uhinek ere surfari ugari erakartzen dute. Surfaren ufadak sukarra eragiten die askori, eta olatu artean ibiltzeko aukera izanez gero, ezin hobeto.

eginda, itsas bazterreraino jaisteko aukera dago; ahal dela itsas behearekin eta eguraldi onarekin jaisteko. Itsaso zakarrarekin ere, haitz arteko igerilekuan olatuak nola apurtzen diren ikusteak merezi du.

Inpernupe

Kostaldeko bideari jarraituz, Zumaia-raino iritsi gara. Hemen ere badago ihesbiderik. Aldi berean, zibilizaziotik gertu eta urruti egoteko aukera topatuko dugu Inpernupen. Moilatik itsaso aldera doan pasealekua hartu, eta Talaiepe jatetxera iritsitakoan, ezkerretara egin behar da. Gora begiratuta, laster ikusiko dugu Zumaia-ko itsasargia. Lehengo galdera burura. Itsasargiaren mendi malkarrean irekiune bat

aurkituko dugu, aurrera egin, eta itsasoarekin tupust eginez. Asko zaindu gabeko gunea da Inpernupe ere, eta batez ere, udan itsasbeherarekin atera dakioko zukua. Bainatzeko eta eguzkia hartzeko aukera ematen du Inpernupek. Hala ere, udazken eta neguan paseatu ondoren, petrilean eseri eta pipitak janez berriketan egoteko ere leku proposa da. Urola ibaia nola itsasoratzen den ikusteko pasealekuaren muturreraino joaten bagara, aldiz, Zumaia-ko Paolera iritsiko gara. Han ere, itsaso barnera sartzen den hormigoizko beso horretan, gustura egoten da.

Pentsatzen jarrita, paradoxi-koa da: naturaren legeen kontra eraikitako tokian lortzen baitugu naturaz gozatzea. Kontraesanaren muga, berriz ere. Baina geroaz.

Off. ■

Inpernupe leku proposa da,
udazken eta neguan, paseatu
ostean pipitak janez berriketan
egoteko itsasoari begira

Dive Tarpoon Urpekaritza



Kirol portua, A7 lokala
48992 Getxo
Tel / Faxa: 94 4912577
e-posta: divetarpoon@euskalnet.net
web orria: www.divetarpoon.com